



Esp. kodea: 2024RBAR0003
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2024 URTEKO DIRULAGUNTZA DEAILDIA

6. ERANSKINA: MERKATARITZA	TOKIKO	ANEXO 6: COMERCIO LOCAL
-------------------------------	--------	-------------------------

6.2. DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUAK, MERKATARITZA ETA ZERBITZU ESTABLEZIMENDUENTZAT TOKIKO MERKATARITZA SUSTATZEKO

1. Xedea eta aplikazio eremua

Deialdi honen xedea da Arrasateko tokiko merkataritza suspertzea.

Finantzatuko dira Arrasateko tokiko merkataritza sustatzeko antolatzen diren jarduerak.

2. Establezimendu onuradunak eta haien ezaugarriak

Laguntza honen onuradunek baldintza hauek bete beharko dituzte:

Merkataritza eta zerbitzu sektoreko aktibitatea izatea.

Jarduera edo/eta establezimendua Arrasaten izatea.

Dirulaguntza hauetatik kanpo geldituko dira udalak merkatarien elkartearekin urtero sinatzen duen lankidetzak hitzarmenaren bitartez onuradun diren ekintzak.

Arrasateko Udalarekin zorrik ez edukitzea.

6.2. BASES PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES, CON EL OBJETO DE PROMOVER EL COMERCIO LOCAL DIRIGIDAS A ESTABLECIMIENTOS COMERCIALES Y DE SERVICIOS

1. Objeto y ámbito de aplicación

El objeto de la presente convocatoria es la promoción del comercio local de Arrasate.

Se financiarán las actividades que se organicen con el objeto de promocionar la actividad mercantil local.

2. Los establecimientos beneficiarios y sus características

Las beneficiarias de esta ayuda deberán cumplir los siguientes requisitos:

Tener una actividad en el sector comercial o de servicios.

Que la actividad y/o establecimiento se ubique en Arrasate.

Quedan excluidos de estas subvenciones las actividades que se benefician del convenio de colaboración que anualmente suscribe el ayuntamiento con la asociación de comerciantes.

No tener deudas con el Ayuntamiento de Arrasate.

Kodea	CL24/02981	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1AFZY.N.GKJU			
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1AFZYN.GKJU			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				



Esp. kodea: 2024RBAR0003
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2024 URTEKO DIRULAGUNTZA DEAILDIA

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira: bere izaera eta helburuagatik udalaren beste dirulaguntza programa batean sartu daitezkeen proiektuak edo ekintzak.

Quedan excluidos de la presente convocatoria: aquellos proyectos o acciones que, por su naturaleza y objeto, puedan encuadrarse en otro programa subvencional municipal.

3. Diruz lagunduko diren ekintzen ezaugarriak

3. Características de las actividades a subvencionar

2024an Tokiko merkataritza sustatzen duten interes orokorreko jarduerak antolatzeke izango da, eta ez sustatzailearen aktibitatean onurak lortzeko bakarrik.

Estará destinado a la organización de actividades de interés general que promuevan el comercio local en el año 2024 y no aquellas que sólo sean de interés o beneficio para la actividad del promotor.

Diruz lagunduko diren ekintzak ezingo dira izan negozioaren ohiko jarduerak.

Las acciones objeto de la subvención no podrán ser las habituales de la actividad.

Jardueraren parte hartzea zabalik egongo da edozein herritar, interesdun edo profesionalentzat.

La participación en la actividad estará abierta a cualquier ciudadana/o, interesada/o o profesional.

Hizkuntza normalkuntzari dagokionez, onuradunak konpromisoa hartzen du antolatutako jardueraren inguruko mezu idatziak eta jende aurreko ekitaldiak euskaraz edo ele bitan egiteko, euskarari lehentasuna emanez. Mezuen hizkuntza zuzentasuna bermatzeko, Udaleko Euskara Sailaren aholkularitza zerbitzua onuradunaren esku jarriko da.

En lo que respecta a la normalización lingüística, la persona beneficiaria se compromete a realizar los mensajes escritos y las actividades en euskera o en ambas lenguas, dando prioridad al euskera. Para garantizar la corrección lingüística de los mensajes, se pondrá a disposición de la persona beneficiaria el servicio de asesoramiento del Departamento de Euskera del Ayuntamiento.

Generoari dagokionez, errespetatuko da genero berdintasuna.

Respecto al género, se respetará la igualdad de género.

Ingurumenari dagokionez, ahalegin berezi bat egingo da jardueraren eraginez sortuko den materialekin eta luzatuko den mezuarekin.

En relación al medio ambiente, se realizará un esfuerzo especial con los materiales que genere la actividad y con el mensaje que se extienda.

4. Diruz lagunduko diren gastuak

4. Gastos objeto de subvención.

Laguntza lerro honen bitartez diruz lagunduko dira Arrasateko merkataritza eta

A través de esta línea de ayudas se subvencionarán los gastos relativos a la organización de acciones

Kodea	CL24/02981	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1AFZY.N.GKJU			
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1AFZYN.GKJU			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2024RBAR0003
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2024 URTEKO DIRULAGUNTZA DEAILDIA

zerbitzuak sustatzeko ekintzak antolatze
gastuak, BEZa barne.

Finantzarriak izango dira kalean, establezimenduetan, beste lokal batzuetan edo udal eraikinetan egiten diren ekintzak, hala nola ikastaro, hitzaldi, tailer edo interes orokorreko beste ekintza batzuk aurrera eramateko beharrezko gastuak eta zerbitzuen kontratazioak.

Finantzatuak dira jardueren zabalpena eta sustapena egiteko gastuak.

Finantzatuak dira onuradunaren pertsonal gastua, baldin eta diruz lagunduko den jardueran zuzenean parte hartzen badu (hizlari, hezitzaile...). Antolaketa, koordinazio eta antzeko lanak ez dira kontuan hartuko.

Ez dira finantzatuak inbertsioak.

Ez dira finantzatuak jarduerarekin zerikusi zuzena ez duen edozein material erosketa edo zerbitzuen kontratazioa.

Ez dira finantzatuak udalaren iritziz beste laguntza programa batzuetan hobeto egokitzen diren jarduerak edo proiektuak.

5. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Programa honek finantzatuak duen jardueraren gastu onargarriaren % 50. Establezimendu bakoitzak, urtean gehienez ere 1.500 euroko dirulaguntza jaso ahal du.

Diruz lagungarriak izan daitezkeen pertsonal gastuak (onuradunarenak zein beste profesional batzuenak) izango dira gehienez,

de promoción del comercio y el servicios de Arrasate, IVA incluido.

Serán financiadas las acciones que se realicen en la calle, establecimientos, otros locales o edificios municipales, tales como gastos de cursos, conferencias, talleres u otras actividades de interés general y contratación de servicios.

Se financiarán los gastos de difusión y promoción de las actividades.

Se financiarán los gastos de personal de la persona beneficiaria, siempre que estén directamente relacionadas con la actividad subvencionada (formación, conferenciante...). No se considerarán los gastos de organización, coordinación y similares.

No se financiarán inversiones.


No se financiará la adquisición de cualquier material o contratación de servicios no relacionado directamente con la actividad.

No se financiarán aquellas actividades o proyectos que el Ayuntamiento considere que encajan mejor en otros programas de ayudas.

5. Cuantía de la subvención

Este programa financiará el 50% del gasto admisible de la actividad. Cada establecimiento podrá percibir un máximo de subvención de 1.500 euros por año.

En el caso de que se presenten gastos de personal (sean de la persona beneficiaria o de profesionales) se tomará como máximo gasto

Kodea	CL24/02981	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1AFZY.N.GKJU			
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1AFZYN.GKJU			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaiten webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2024RBAR0003
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2024 URTEKO DIRULAGUNTZA DEAILDIA

udalak antzeko ekintzetarako erreferentzia gisa dituenak.

subvencionable, el importe de referencia del ayuntamiento en actividades similares.

Beste gastu batzuei dagokionez, arrazoizkoak ez diren zenbatekoak ez dira onartuko.

Respecto a otros gastos, no se admitirán importes que no sean razonables.

Udal lokalen erabilerari dagokionez, programa honek finantzatuko du kostuaren % 100.

En el caso de uso de locales municipales, este programa financiará el 100% del coste.

Jarduerak aurkezten badira hainbat establezimenduren elkarlana sustatuz, establezimendu bakoitzari aplikatuko zaio dagokion dirulaguntza zenbatekoa.

Cuando las actividades se presenten promoviendo la colaboración de varios establecimientos, el importe de la subvención se aplicará a cada uno de ellos.

Jarduerak eragiten badu diru sarrera bat, ez zaio aplikatuko dirulaguntzaren kalkuluari, baldin eta gainfinantzaziorik ez badago.

En el caso de que la actividad genere un ingreso, no se aplicará al cálculo de la subvención, siempre que no exista sobrefinanciación.

6. Jardueraren zabalpena

6. Divulgación de la actividad

Jardueraren zabalpena egiteko orduan, bermatuko da informazioa helduko dela herritar eta interes gune guztietara. Bermatuko da informazioa irisgarria izatea.

La difusión de la actividad se realizará de manera que se garantice la información a la ciudadanía y a los puntos de interés. Se garantizará la accesibilidad de la información.

Jardueraren zabalpenerako erabiliko diren euskarriek, fisioak zein elektronikoa, antolatzailearen izenarekin batera, udalaren logo ofiziala eramango dute.

Los soportes, tanto físicos como electrónicos, que se utilicen para la divulgación, irán acompañados del logo oficial del Ayuntamiento junto con el de la organización.

7. Dirulaguntza zelan eskatu

7. Forma de solicitud de la subvención

Dirulaguntzak eskatzeko, agiri hauek aurkeztuko dira:

Para solicitar la subvención, deberá presentar la siguiente documentación:

1. Eskaera orria beteta
2. Memoria labor bat ondoko informazioarekin:
 - a. Jardueraren helburua.

1. Impreso de solicitud cumplimentado.
2. Una pequeña memoria con la siguiente información:
 - a. Objetivo de la actividad.

Kodea	CL24/02981	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1AFZY.N.GKJU			
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1AFZYN.GKJU			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2024RBAR0003

Gaia: 2024 URTEKO DIRULAGUNTZA DEAILDIA

Titularra: OGASUN BATZORDEA

- | | |
|---|--|
| b. Jarduera zertan datzan. | b. En qué consiste la actividad. |
| c. Non eta noiz izango den. | c. Lugar y fecha. |
| d. Nori zuzenduta izango den eta parte hartze kopurua. | d. A quién está dirigida y número de participantes. |
| e. Jarduera gauzatzeko zer baliabide eta azpiegitura erabiliko diren. | e. Recursos e infraestructuras que se utilizarán para el desarrollo de la actividad. |
| f. Jardueraren kostua. | f. El coste de la actividad. |
| g. Udal instalazioak edo materiala erabiliko den. | g. Si se utilizarán instalaciones o material municipal |
-
- | | |
|---|--|
| 3. Aktibitatearen IFZ, pertsona juridikoen kasuan, edo NAN, pertsona fisikoa denean. | 3. NIF de la actividad en caso de pertenecer a una persona jurídica o DNI en caso de persona física. |
| 4. Enpresak JEZn altan egotearen ziurtagiria. | 4. Certificado de alta en el IAE de la empresa. |
| 5. Beste agiri gehigarri batzuk, Arrasateko Udalak beharrezko iritziz gero eskatzea. | 5. Otra documentación adicional que, en su caso, se considere necesaria solicitar al Ayuntamiento de Arrasate. |
| 6. Dirulaguntza eskabideak udalaren egoitza elektronikoaren bitartez aurkeztuko dira. | 6. Las solicitudes de subvención se presentarán a través de la sede electrónica del Ayuntamiento. |

8. Eskerak aurkezteko epea.

Eskerak aurkeztu ahal izango dira behin udalak oinarri hauek onartuta, urte bukaera arte.

9. Justifikazioa.

Jardueraren justifikazioa egingo da, gehienez ekintza gauzatu eta hilabeteko epean.

Dagoeneko gauzatuta dauden jardueren kasuan, justifikazioa egingo da, gehienez eskaera egin eta hilabeteko epean.

8. Plazo de presentación de solicitudes.


Las solicitudes podrán presentarse una vez aprobadas las presentes bases por el Ayuntamiento, hasta final de año.

9. Justificación.

La justificación de la actividad se realizará en el plazo máximo de un mes desde la ejecución de la acción.

En cuanto a las actividades que ya estén ejecutadas, la justificación se realizará en el plazo máximo de un mes desde su solicitud.

Kodea	CL24/02981	Udala	Arrasate/Mondragón
CUDO	000.0055.AAA1AFZY.N.GKJU		
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1AFZYN.GKJU		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia			







Esp. kodea: 2024RBAR0003
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2024 URTEKO DIRULAGUNTZA DEAILDIA

Gastuak justifikatzeko, dokumentu hauek aurkeztuko dira:

- Ekintzaren memoria labur bat (egindako jarduerak, non eta noiz egin diren, zenbat pertsonak parte hartu duten, argazkiak ...)
- Gastuen fakturak
- Fakturen ordainketa agiriak

Para la justificación de los gastos se presentarán los siguientes documentos:

- Breve memoria de la actividad (actividades realizadas, lugar y fecha de realización, nº de personas que han participado en la misma, fotos...)
- Factura de gastos
- Recibos los pagos realizados

10. Programaren diru eskuragarritasuna.

Programa hau finantzatuko da 2024ko Udal Aurrekontuko 0700.471.431.00.01 “Toki Merkataritza sustatzeko dirulaguntzak” partidatik. Partida horren zuzkidura 6.000 eurokoa izango da.

Ezarritako diru kopurua agortutakoan bukatutzat emango da programa, udalak propio erabaki ezean kreditua handitzea.

10. Disponibilidad económica del programa.

Este programa será financiado con cargo a la partida presupuestaria del Presupuesto Municipal 2024 0700.471.431.00.01 “Subvenciones para el fomento del comercio local”. La disponibilidad de la partida será de 6.000 euros.

El programa se dará por concluido cuando su consignación presupuestaria se agote, a no ser que el Ayuntamiento expresamente decida aumentar dicho crédito.

11. Eskaerak aztertzea eta ebaztea

Programa honen espedienteak tramitatzeaz Merkataritzako unitate administratiboa arduratuko da.

Eskaerak aurkeztutako ordenan aztertu eta erabakiko ditu udalak, programaren kreditu agortu arte.

Eskabideak edo harekin batera doan nahitaezko dokumentazioak akatsen bat izanez gero edo osatu barik egonez gero, interesdunek 10 eguneko epea izango dute antzemandako akatsak zuzentzeko, udalak egindako errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

11. Análisis y resolución de solicitudes

La tramitación de los expedientes de este programa corresponderá a la unidad administrativa de Comercio.

Las solicitudes se resolverán por orden de presentación, hasta que se agote la consignación presupuestaria.

Cuando la solicitud o la documentación preceptiva que la acompaña adolezca de algún defecto o sea incompleta, los interesados dispondrán de un plazo de 10 días, contados a partir del siguiente al de la notificación del requerimiento efectuado por el Ayuntamiento, para subsanar los defectos observados.

Kodea	CL24/02981	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1AFZY.N.GKJU			
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1AFZYN.GKJU			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2024RBAR0003
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2024 URTEKO DIRULAGUNTZA DEAILDIA

Horiek zuzendu barik, emandako epea igaroz gero, udalak ez du onartuko dirulaguntza eskabidea, eta beste tramiterik egin barik artxibatu egingo du espedientea.

12. Ordaintzeko modua

Udalak laguntzak ordainduko ditu eskaerak jaso eta ebatzi ahala.

13. Bateragarritasuna beste dirulaguntza batzuekin

Programa honetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira beste edozein laguntzarekin, kontzeptu beragatik beste erakunde publiko edo pribatuetatik jasotzen direnean, betiere ez bada gertatzen gainfinantzaketarik; izan ere, kasu horretan, programa honen bidez emandako laguntza gutxituko da soberakinari dagokion zenbatekoan.

Beste dirulaguntza batzuk eskatu edo lortu badira, justifikazio orriarekin batera aurkeztuko dira. Ezingo da egon gainfinantzaziorik.

14. Arau aplikagarria.

Oinarri hauetan aurreikusita ez dauden gaitan, hauek aplikatuko dira: Arrasateko Udalaren dirulaguntzak ematea arautzen duen Ordenantza norgehiagoka araubideko dirulaguntzen programen deialdiaren oinarri orokorrak, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta indarrean dauden arauak, gai honi aplikatu dakizkiokeenak.

Transcurrido el plazo concedido sin haber procedido a la subsanación, el Ayuntamiento inadmitirá la solicitud de subvención y archivará el expediente sin más trámite.

12. Forma de pago

El Ayuntamiento abonará las ayudas en función de la recepción y resolución de las mismas.

13. Compatibilidad con otras subvenciones

Las ayudas previstas en el presente Programa serán compatibles con otras que por el mismo concepto pudieran percibirse de otras entidades públicas o privadas, siempre que de ello no se derive sobrefinanciación, en cuyo caso la ayuda concedida en virtud de este Programa se reducirá en la cantidad correspondiente al exceso.

En el caso de que se hayan solicitado y/o obtenido otras subvenciones, éstas se presentarán junto con la hoja justificativa. No podrá existir sobrefinanciación.

14. Normativa aplicable.

En lo no previsto en estas bases, será de aplicación la Ordenanza reguladora de la concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Arrasate, las bases generales de la convocatoria de los distintos programas subvencionales en régimen de concurrencia competitiva del Ayuntamiento de Arrasate, la Ley 38/2003 General de Subvenciones y la normativa vigente que resulte de aplicación a esta materia.

Kodea	CL24/02981	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1AFZY.N.GKJU			
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1AFZYN.GKJU			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				